

Alonsotegiko bizikletetarako sarea: astialdirako gunea Alonsotegiko Udala



Proiektu honen bitartez Alonsotegiko Udalean oinezkoentzako eta txirrindularientzako pasealekua eraikiko da La Roblako tren zaharrak zuen FEVEren trenbidearen trazadura aprobetxatuz. Ibilbide hori kontserbazio-egoera ona eta aldapa gutxi dituelako berrerabili ahal izan da, beraz, guztiontzat egokia da.

Bizikletetarako bidea kroserako zirkuitu txikiekin, atsedenerako guneekin, piknikguneekin, solariumarekin eta abarrekin txandakatzen da. Hala, proiektuak ibaiertza berreskuratzen laguntzen du eta udalerria astialdirako modu berriez hornitzen du.

Alonsotegiko bizikletetarako sarea 2007-2013rako EGEFek finantzatu zuten, besteak beste, eta udalerraren barnean komunikatzeko bizikleta-bidea da,

Una manera de hacer Europa
Fondo Europeo de Desarrollo Regional



baina, aldi berean, Bilbo Metropolitarraren Area Funtzionalean sartuta dago. Horrek bizikleta-sare erlazionatua zehaztea du helburu, Bilbo Handiaren eskualdean bizikleta hautazko garraio-baliabide bihurtzeko.

Jarduera hori garapen iraunkorraren alde Alonsotegiko Udalaren eta Bizkaiko gainerako herri-erakundeen konpromisoaren emaitza da. Neurri desberdinen bitartez hiri bizigarriagoa eta bizi-kalitate handiagoa lortu nahi dira. Neurrien artean autoaren aldean oinezkoentzako espazio handiagoz hornitzera bideratutakoak azpimarra daitezke, baita herri-garraioa edo beste hautazko bitartekoak ere, hala nola bizikleta, sendotzera bideratutakoak ere.

Bizikleta mugikortasun-politiketan sartzearekin motorrezko ibilgailuen trafikoak sortzen dituen arazoak (ekonomikoak, ingurumenekoak eta sozialak) gainditzen dira eta baliabide merkea, ingurumenaren ikuspegitik onbera eta gizartearen ikuspuntutik bidezkoa aprobetxatzen da.

Una manera de hacer Europa
Fondo Europeo de Desarrollo Regional

